


GRADU AMAIERAKO LANA	Eraginkorra da ariketa fisikoa, biriketako minbizia duten pertsonengan, fatiga murriztu eta loaren-kalitatea eta bizi-kalitatea hobetzeko?
----------------------------	---



2022/2023 ikasturtea

2023 eko apirilaren 24a

Lekua: Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

Egilea: Ane Castillejo Ugalde

Hitz kopurua: 5096 hitz

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA	
SARRERA	2
MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
HELBURUA	7
METODOLOGIA	8
Diseinu mota	8
Barneratze eta kanporatze irizpideak	8
Bilaketa estrategia	9
Artikuluen aukeraketa	9
Artikuluen analisisa	10
EMAITZAK ETA EZTABAIDA	11
1. Ariketa fisikoaren eraginkortasuna fatiga murrizteko biriketako minbizia duten pazienteengan	11
2. Ariketa fisikoaren eraginkortasuna loaren-kalitatea hobetzeko, biriketako minbizia duten pazienteengan	17
3. Ariketa fisikoak bizi-kalitatea hobetzeko duen eraginkortasuna biriketako minbizia duten pazienteengan	21
ONDORIOAK, LIMITAZIOAK ETA INPLIKAZIOAK	26
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	28
ERANSKINAK	34
1. Eranskina: Kontzeptuen taula	34
2. Eranskina: Bilaketa taula	35
3. Eranskina: Irakurketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoa	41
4. Eranskina: Irakurketa kuantitatiboko azterketaren irakurketa kritiko garatua	44
5. Eranskina: Fluxu diagrama	46
6. Eranskina: Emaitzetarako artikuluen laburpen taula	47
7. Eranskina: Zuhaitz-kategoriala	60

SARRERA

Marko kontzeptuala eta justifikazioa: Gaur egun Biriketako minbizia da hilkortasun tasa altuena duen minbizia. Diagnostikatzeko egiten diren frogak ematen duten informazioaren arabera, gaitzaren estadioa ezartzen da eta horren arabera, kirurgia, kimioterapia edota erradioterapia jasotzea erabakitzen da. Gaixotasunak berak, eta hori sendatzeko erabiltzen diren tratamenduek eragiten dituzten sintomen artean, fatiga eta loaren asaldurak aurkitzen dira, pazientearen bizi-kalitatea murrizten dutenak. Hori horrela izanda, ariketa fisikoak horren hobekuntzan lagundu dezakeela ikusi da.

Helburua: Biriketako minbizia duten pazienteengan fatiga murrizteko eta loaren-kalitatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ariketa fisikoaren eraginkortasuna aztertzea.

Metodologia: Lan hau burutzeko azken 10 urteetan argitaratutako 15 entsegu kliniko erabili dira. Horiek aurkitzeko, hurrengo datu-base eta aldizkariak erabili dira: PubMed, Medline, Lilacs, Cinhal, Cochrane, Psycinfo eta Cancer Nursing.

Emaitzak eta eztabaida: Fatigari dagokionez, bost ikerketek hobekuntza estatistikoki esanguratsuak lortu zituzten eta hiruk ez zituzten diferentzia esanguratsurik lortu, nahiz eta horietatik bitan fatigaren hobekuntza eman zen. Beste batean aldiz, fatigaren areagotzea eman bazen ere, ezin da jakin interbentzioaren ondorioa izan zen edo ez. Bestalde, loaren-kalitateari dagokionez, hiru ikerketek lortu zituzten estatistikoki hobekuntza esanguratsuak. Beste hiruk aldiz ez zituzten eraginkortasun esanguratsurik lortu, baina hala ere, hobekuntzak lortu ziren bitan. Beste bitan, fatigaren kasuan bezala, ezin izan da ariketa fisikoaren eraginkortasuna egiaztatu, *p*-aren faltaren ondorioz. Azkenik, bizi-kalitateari dagokionez, 8 ikerketek bizi-kalitatearen hobekuntza lortu zuten bitartean, beste bik kontrakoa lortu zuten, nahiz eta, esan bezala, ezin izan da eraginkortasuna egiaztatu.

Ondorioak: Ariketa fisikoak biriketako minbizia duten pertsonen fatigaren murriztean eta loaren- eta bizi-kalitatearen hobekuntzan duen eraginkortasuna kontuan izanda, osasun profesionalek, honen barnean erizainek, jarduera fisikoa biriketako minbizia duten pazienteen artatzearen barnean sartu beharko lukete, paziente bakoitzaren beharrak, ezaugarriak eta limitazioak kontuan izanda betiere.

MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun minbizia da mundu mailan lehengo hilkortasun kausa, 2020an 10 milioi hildako eraginez. Aipatzekoa da biriketako minbizia dela hilkortasun tasa altuena duena, nahiz eta intzidentzia altuena duena ez izan. Mundu mailan 2020an kantzer honi lotutako 2,21 milioi kasu berri erregistratu ziren eta 1,8 milioi heriotza ^[1].

Espainiako estatistika institutuaren arabera, Espainian ere garrantzi altuko gaixotasuna da minbizia, 2020an heriotza guztien bigarren kausa nagusia (heriotzen %22,2a) eta gizonezkoen artean heriotzaren lehen arrazoia izan baitzen^[2]. Urteek aurrera egin ahala, biriketako neoplasiaren intzidentziak gizonezkoetan behera egin duen bitartean, emakumezkoetan gora egin du, azken hauen kasuan, gaur egun, 2001ean zenaren hirukoitza bilakatuz. Hau, 70eko hamarkadatik aurrera emandako tabakoaren kontsumoaren gorakadarekin erlazionatuta dago. Ondorioz, 2022an gizonezkoen artean biriketako minbizia, intzidentziari dagokionez, minbizien artean hirugarrena izango dela estimatzen da, 22.316 kasu berrirekin, baita emakumeen kasuan ere, 8.632 kasurekin ^[3].

Euskal Herrian ere, lau minbizi ohikoenen artean aurkitzen da biriketako kantzerra. Espainian bezala, Euskal Herrian ere, gizonezkoen artean biriketako minbiziaren intzidentziak behera egin du %0,6 batean, eta emakumeen artean aldiz, gora %5,8an. Hilkortasunari dagokionez, gizonezkoen artean, minbizi mota hau tasarik altuena duen minbizia da (%24,3) eta emakumezkoen artean berriz, hirugarren postuan aurkitzen da (%13,2) ^[4].

Minbizia zelula normal batek banatzeko gaitasun kontrolaezina daukanean eta gainera, progresiboki, azkar eta mugarik gabe banatzen denean ematen da. Biriketako minbizia gaixotasun heterogeneoa da, ezaugarri klinikopatologiko oso ezberdinak dituena^[5]. Tumore honen prozesua, beste hainbat minbizi prozesuen antzekoa da^[3]. Biriketako edozein mintzetan has daiteke gaiztotze prozesua, baina normalean, bronkioen paretetan ematen da. Hala ere, trakean, albeoloetan edo birikien euskarrietan ere eman daiteke^[6].

Bi biriketako minbizi mota bereizten dira nagusiki: Zelula ez txikikoak (kasuen %85a) eta zelula txiki edo mikrozitikoak (%15a). “Zelula txikiak” terminoa mikroskopian ikusten diren zelula kartzinogenoen tamainari dagokio. Bi mota hauen arteko diferentzia jakitea berebizikoa da, tratamendua modu ezberdinetan egiten baita^[3].

Zelula ez txikikoak diren biriketako minbizian, bi multzo handi ezberdintzen dira: histologia eskamatsua dutenak eta ez eskamatsu edo adenokartzinomak ^[3].

Gaixotasun hau duten pertsonetan, sintomak aldakorak dira pertsona batetik bestera. Kasu batzuetan ez dituzte sintomarik izaten, eta horren ondorioz, biriketako minbizia duten hiru pertsonetatik bik, metastasia garatzen dute^[3-7]. Pertsona erretu beharko luketen sintomen artean hauek aurkitzen dira: okerrera egiten duen edo hobetzen ez den eztula, disnea, hemoptisia, bularreko mina, hots zakarra, biriketako infekzio anitzak, neke sentazioa, planifikatu gabeko pisu galera esanguratsua eta aurpegi edo besoetako hantura besteak beste^[7].

Diagnostikoa egiteko, hainbat froga erradiologiko egiten dira, birikez gain, gorputzeko beste organo batzuk ere erasanak izan diren ikusteko. Lortutako informazioarekin, minbiziaren estadioa ezartzen da. Estadio horren arabera pertsonak pronostiko eta terapia ezberdinak izango ditu, hau da, zelula ez txikiko minbizia duten eta I. estadioan dauden pertsonetan 5 urtetarako biziraupena %80koa den bitartean, II-III. estadioan dauden pertsonetan %13-60-koa izango da^[8-5].

I. estadioan pronostiko oneko pertsonak aurkitzen dira, metastasirik gabeko tumoreekin. II. estadioan, biriketako gongoil linfatikoko metastasia duten tumoreak aurkitzen dira. III. estadioan berriz, bi estadio bereizten dira: III_a eta III_b. Lehenengoa, tumorea biriketatik kanpo hedatzen denean ematen da, eta bigarrena aldiz, biriketatik kanpo hedatzeaz gain, biriketako konpromezua dagoenean^[8]. Azkenik, IV. estadioan, distantziatzko metastasia daukaten pertsonak aurkitzen dira, hezurak, garuna edo gibela erasanda daudenean ^[6-8].

Lehen aipatu den bezala, minbiziaren kontrako tratamendua estadioaren araberakoa izaten da^[3]. Aukera ezberdinak daude: kirurgia, kimioterapia eta erradioterapia^[9]. I. eta II. estadioan eta batzuetan III_a estadioan dauden zelula ez txikiko biriketako neoplasian, kirurgia izaten da aukerazko tratamendua, batzuetan lehenago edo ondoren ematen den kimioterapiarekin^[3-6]. Kirurgia mota tumorearen tamainaren, kokalekuaren eta kirurgia aurreko ebaluazioaren araberakoa izaten da^[10]. III_b estadioan daudenak aldiz, kimioterapia eta erradioterapiaren arteko konbinazioa jasotzen dute, modu konkominantea, hau da, biak batera, edo modu sekuentzialean, hots, lehenengo

kimioterapia eta ondoren erradioterapia. IV. estadioan bestetik, tumorearen biopsiaren bitartez, zenbait biomarkargailu aztertzen dira tratamendu egokia aukeratzeko. Hauen arabera immunoterapia soilik hartzea edo kimioterapia immunoterapiarekin konbinatuta ematearen erabakia hartuko da^[3-5]. Azkenik, biriketako minbizi mikrozitikoaren kasuan, hazkuntza azkarra denez eta metastasi goiztiarra agertzeko joera dagoenez, aukerazko tratamenduak kimioterapia eta erradioterapia izaten dira^[11]. Metastasirik ez dagoenean, bien arteko konbinazioa egiten da, eta bestalde, metastasia dagoenean, kimioterapia soilik erabiltzen da^[3-6].

Minbiziaren diagnostikoak eta hori sendatzeko beharrezko tratamenduak sintoma fisiko eta psikologikoak eragiten dituzte^[12], eta horiek pazienteen egunerokotasunean oztopoak sortzen dituzte, hala nola, egunerokotasuneko jardueretan, aisialdian... bizi-kalitatea okertuz^[13]. OME-ren bizi-kalitatearen definizioak esaten duenaren arabera, bizi-kalitatea ez da gaixotasunaren ausentzia, ongizate fisiko, emozional eta soziala baizik^[14]. Biriketako minbizi duten pertsonak, beste minbizi motak dituztenek baino osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitate okerragoa daukatela adierazten dute, izan ere, funtzionalki eta psikologikoki asko narriatzen diren pazienteak dira, gaixotasunak eragiten dituen sintomen eta tratamenduaren albo ondorioen eraginez^[15-16].

Mina eta gogo-aldartearekin batera, fatiga eta insomnia dira biriketako minbizi duten pazienteetan sintomarik ohikoenak^[12]. Zenbait ikerketek esaten dutenez, minbiziaren kontrako tratamenduak hartzen dituzten pazienteetatik %50-ak baino gehiagok estutasun sintomak izaten dituzte, fatiga esate baterako^[17-18]. National Comprehensive Cancer Network-en arabera kantzerrarekin erlazionatutako fatiga, denboran zehar mantentzen den estutasun fisiko, kognitibo edota emozionalaren sentazio subjektiboa da, minbiziarekin berarekin edota honen tratamenduarekin erlazionatzen dena, pertsonak egindako ariketarekin proportzionala ez dena eta funtzionaltasunean eragina duena^[19]. Honen larritasunak gora egiten du gaixotasunak aurrera egiten duen ahala. Hain da prebalentzia non behin tratamendua amaitzean, hamarretik zortzik fatigaren areagotzea sentitzen duten^[17-18]. Fatigak, biriketako minbizi duten pertsonetan, prebalentzia handiagoa dauka eta gainera gehiago irauten du^[20]. Sintoma honek, pertsonaren funtzionaltasunean eta osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean, minak edo depresioak bezalako sintomak baino inpaktu negatibo handiagoa daukala ikusi da.

Gainera, diagnostikoan eta tratamenduan zehar fatigatuta sentitzea hilkortasun altuagoarekin erlazionatu da ^[19].

Beste zenbait ikerketek diotenez, minbizia pairatzen dutenen artean, loaren asaldurek %17-70-eko prebalentzia daukate^[21]. Arazo horiek are prebalenteagoak dira biriketako minbizia duten pertsonetan, izan ere, beste minbizi edo afekzioren ondorioz ematen diren loaren asaldura kasu baino kasu gehiago eragiten dituela ezagutarazi zuen Kanadako ikerketa batek^[22]. Aipatzekoa da ere, depresio eta antsietatea bezalako faktore psikologikoen paper handia jokatzeko dutela loaren kalitatearen faltan^[23]. Esate baterako, lehenengo kimioterapia zikloan ematen den antsietate eta kezkek, loak hartzeko zailtasunak sortzen dituzte paziente hauetan^[24]. Gainera, loaren asaldura izaten dutenek, ez dutenek baino sintoma psikologiko okerragoak izaten dituzte^[25].

Hau horrela izanda, minbizia sendatzeko tratamenduak eragiten dituen sintomak arintzeko ariketa fisikoaren eraginkortasuna aztertzeko ikerketa asko egiten ari dira gaur egun. OME-k diotenaren arabera, ariketa fisiko bezala ulertzen da, energia gastu bat dakarren muskulu eskeletikoaren bitartez egindako gorputzaren edozein mugimendu^[26]. Gero eta gehiago dira ariketa fisikoak pertsonaren funtzionaltasuna, bizi-kalitatea eta independentzia hobetzen laguntzen duela esaten duten ikerketak^[27], baita loaren-kalitatea hobetzen, fatiga murrizten eta minbiziaren tratamenduak eragiten dituen beste hainbat sintoma gutxitzen duela esaten duten ikerketak ere^[21-28]. Ariketa fisiko hori mota ezberdinetakoa izan daiteke; aerobikoa, indarrezkoa, malgutasunezkoa, baita intentsitatea eta iraupen ezberdinekoa ere^[28]. Lehenengoan, biriketako gaitasun eta gaitasun kardiobaskularra erabiltzen dituzten aktibitateak sartzen dira, adibidez: oinez ibiltzea, bizikletan ibiltzea, uretako aerobik-a, tenisa, dantza... Indarrezko entrenamentu batean aldiz, muskulua gehiago kargatu eta beraz, muskulu horrekin lan gehiago egitea eragiten da. Azken honen adibide dira, sentadillak eta prentsa, esate baterako^[29].

Hortaz, lan honen helburua ariketa fisikoak, biriketako minbizia duten pertsonengan, fatiga murrizteko eta loaren-kalitatea eta bizi-kalitatea hobetzeko duen eraginkortasuna aztertzea da.

HELBURUA

Biriketako minbizia duten pazienteengan fatiga murrizteko eta loaren-kalitatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ariketa fisikoaren eraginkortasuna aztertzea.

METODOLOGIA

Diseinu mota

Helburuari erantzuna emateko literaturaren errebisio kritikoa burutu da.

Barneratze eta kanporatze irizpideak

- **Barneratze irizpideak:**
 - ***Gaia:*** Biriketako minbizia barne hartzen duten ikerketak eta aldi berean ariketa fisikoaren eraginkortasuna fatigan, loaren-kalitatean edota bizi-kalitatean aztertzen duten ikerketak izatea.
 - ***Argitalpen data:*** Datuak eguneratuak izateko helburuarekin, azken hamar urteetako artikulua erabiliko dira, hau da, 2012-2022 arteko artikulua.
 - ***Artikulu mota:*** Aldizkari eta datu baseetan argitaratutako entsegu klinikoak izatea, ebidentzia piramidean, ebidentzia altuenetariko diseinu motak baitira.
 - ***Artikuluen eskuragarritasuna:*** “Full text”-ean eta online irakurri daitezkeen artikulua izatea.
 - ***Populazioa:*** Biriketako minbizia duten paziente helduak (>18 urte) izatea.
 - ***Artikuluen hizkuntza:*** Ingelesean eta gaztelaniaz idatzitako artikulua.
 - ***Geografia:*** Mundu mailan eginikoa izatea, ikuspegi globalago bat izateko intentzioarekin.
- **Kanporatze irizpideak:**
 - ***Gaia:*** Biriketako minbizi, ariketa fisikoa, fatiga, lo egiteko arazoak edo bizi kalitateari buruz hitz egiten duten artikulua izatea, hau da, helburuari erantzuten ez zioten artikulua.
 - ***Argitalpen data:*** 2012 baino lehenago argitaratutakoak izatea.
 - ***Argitalpen mota:*** Entsegu klinikoak ez izatea.
 - ***Populazioa:*** Biriketako minbizia ez den beste edozein lokalizaziotako minbizia duten, biriketako minbizia gaindituta duten edo <18urte gaixoak onartzen dituzten artikulua.
 - ***Artikuluen hizkuntza:*** Gaztelania edo ingelesez idatzita ez dauden artikulua izatea.

Bilaketa estrategia

Lehenengo helburua hitz gakoetan deskonposatu da: Biriketako minbizi, ariketa fisikoa, fatiga, loare-kalitatea eta bizi-kalitatea. Ondoren, hitz bakoitza ingelesera itzuli da eta bakoitzerako datu baseetako tesauroetan bilatuz, deskriptoreak lortu dira. Bilaketak aurrera eramateko, datu base ezberdinak erabili dira: *PubMed*, *Medline*, *Lilacs*, *Cinhal*, *Cochrane* eta *Psycinfo*. **(1. eranskina: Kontzeptu taula).**

Bilaketa ahalik eta sistematizatuena egiteko, ekuazio nagusi batekin saiatu da datu base bakoitzean ((Lung neoplasm) AND (Exercise) AND ((Fatigue) OR (Sleep quality) OR (Quality of life))) eta horretatik abiatuta, beste konbinaketa batzuk egin dira; bilaketa espezifikokoagoak egiteko. Konbinaketa horiek egiteaz gain, lan eguneratu bat egiteko intentzioarekin, azkeneko hamarkadan idatzitako artikuluak bilatzeko “2012-2022” filtroa gehitu zaie bilaketei. Gainera, datu eta emaitza guztiak eskuragarriak egoteko, “full text available” filtroa ere gehitu da aukeragarri zegoen datu baseetan **(2. eranskina: Bilaketa taula).**

Horretaz gain, entsegu klinikoak lortu nahian, datu baseetan filtro ezberdina erabili behar izan da, nahiz eta zenbait kasutan, eskuragarritasun falta dela eta, ezin izan den erabili. Hala nola, Pubmed eta Psycinfon-n “*Clinical trial*” filtroa gehitu da, Medline-n “*Randomized control trial*” eta Cochrane-n “*Trial*”. Bestalde, Lilacs-en ezin izan da erabili **(2. eranskina: Bilaketa taula).**

Datu base horiek erabiltzeaz gain, *Cancer Nursing* aldizkarian ere eskuzko bilaketa egin da **(2. eranskina: Bilaketa taula)**

Artikuluen aukeraketa

Artikuluen aukeraketa egiteko, ekuazioak eta filtroak erabili ondoren agertutako artikulua guztiak ($n=363$) 3 fase ezberdinetatik pasatu dira. Lehenengo fasean, lehenik eta behin, errepikatutako artikulua baztertu dira ($n=100$) eta gainontzekoen titulu eta abstract-ak irakurri dira. Irakurketa horretan helburuarekin bat ez zetozen artikulua edo barneratze-irizpideak betetzen ez zituztenak baztertu dira ($n=235$). Horren ondoren erabilgarriak ikusi diren artikulua ($n=28$) bigarren fasera pasa dira, hau da, guztiz irakurri dira. Kasu horretan ere beste hainbat artikulua baztertu dira, heburuari erantzuten ez diotelako, edota barneratze-irizpideak betetzen ez dituztelako ($n=13$). Gelditzen



diren artikuluekin ($n=15$) irakurketa kritikoa egin da, artikulua honetarako emaitzak lortzeko helburuarekin (*6. eranskina: Fluxu diagrama*).

Artikuluen analisisa

Artikulu honetako helburua lortzeko, hau da, biriketako minbizia duten pazienteengan, fatiga murriztu eta lo- eta bizi-kalitatea hobetzeko, ariketa fisikoak duen eraginkortasuna zein den jakitzeko, lortutako 15 artikulua 3 kategorian ezberdinetan banatu dira, ariketa fisikoarekin erlazionatzen duen gaiaren arabera. Lehenengoan ariketa fisikoak, biriketako minbizia duten pertsonen fatiga murrizteko duen eraginkortasunaren inguruan hitz egiten duten artikulua azaltzen dira. Bigarrean, ariketa fisikoak, biriketako minbizia duten pertsonen lo-kalitatea hobetzeko duen eraginkortasunaren inguruan hitz egiten dutenak, eta azkenik, ariketa fisikoak, biriketako minbizia duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko duen eraginkortasunaren inguruan hitz egiten dutenak. 3 kategorian huetan, beste 3 azpi-kategoria aurkitzen dira, artikulua bakoitzak lortutako eraginkortasunaren arabera; estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak aurkitu dituztenak, estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak aurkitu ez dituztenak eta p -ren faltagatik interbentzioaren eraginkortasuna egiaztatu ezin direnak (*7. eranskina: Zuhaitz kategoriala*).

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan honen helburuari erantzuteko, 15 artikulu topatu dira, guztiak entsegu klinikoak. Horiek, 2012-2022 urteen artean argitaratutakoak dira. Artikulu gehienak 2020 eta 2021 urteetan argitaratu dira; 3 artikulu urte bakoitzean (1. irudia: Artikulu kopurua urteetan zehar). Aurkitutako artikuluak munduko leku ezberdinetan burutu dira; gehienak (%26,7) Estatu Batuetan eta Dinamarka eta Taiwanen (%20 lurralde bakoitzean) (2.irudia: Ikerketak burututako lurraldeak).



1.Irudia: Artikulu kopuruak urteetan zehar

2. Irudia: Ikerketak burututako lurraldeak

Jarraian, topatutako 15 artikuluetan ariketa fisikoak biriketako minbizia duten pertsonengan, fatigan, lo-kalitatean eta bizi-kalitatean duen eraginkortasunaren inguruan agertzen diren emaitzak adierazten dira.

1. Ariketa fisikoaren eraginkortasuna fatiga murrizteko biriketako minbizia duten pazienteengan

15 artikuluetatik, 11 dira ariketa fisikoa eta fatigaren arteko erlazioari buruz hitz egiten dutenak⁽³⁰⁻⁴⁰⁾.

Ariketa fisikoak, biriketako minbizia duten pazienteen fatiga murriztean duen eraginkortasuna neurtzen duten 11 artikuluetatik, 5-ek⁽³⁰⁻³⁴⁾ estatistikoki diferentzia esanguratsuak lortu zituzten, 3-k⁽³⁵⁻³⁷⁾ ez zituzten estatistikoki diferentzia esanguratsurik lortu, bakarrean⁽³⁸⁾ fatiga denboran zehar areagotu egin zela erakutsi zuen eta azkenik, falta diren bi artikuluek⁽³⁹⁻⁴⁰⁾, fatiga murriztea lortu bazuten ere, *p*-rik ez zegoenez, interbentzioaren ondorioa den edo ez ezin daiteke jakin.

1.taula: Ariketa fisikoaren eta fatigaren murrizketaren artean diferentzia estatistikoki esanguratsuak.

Ikerketa	Lagina/Interbentzioa	Emaitzak
Hoffman et al (2017) Michigan ⁽³⁰⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Ariketa fisikoa eta orekan zentratutako programa 6 astez (lehenengo astean 5 minutuz oinez, astean 5 egunez, astero 5 minutu gehituz egunean 30 minututara heldu arte Wii-arekin + astean 5 egunez, orekarekin erlazionatutako Wii-ko ariketak) (n=37) KT: Ohiko arreta estandarra (n=35) 	<p>Inventario Breve de Fatiga (BFI)</p> <ul style="list-style-type: none"> Kirurgia baino lehen: (IT: 2,2 (DE, 2,0)) eta (KT: 2,0 (DE, 1,9)) → $p = 0,66$ Kirurgia ondoren: (IT: 4,1 (DE, 1,9)) (KT: 3,9 (DE, 2,7)) → $p = 0,74$ 6 astetara: (IT: 0,7 (DE, 0,7)) eta (KT: 4,0 (DE, 2,0)) → $p < 0,001$ <p>Fatigatasuna 6MWT -an</p> <ul style="list-style-type: none"> Kirurgia baino lehen: (IT: 2,0 (DE, 1,7)) eta (KT: 1,5 (DE, 1,8)) 6 astetara: (IT: 0,4 (DE:0,8)) eta (KT: 3,1 (DE, 1,5)) → $p < 0,001$
Zhang et al (2016) China ⁽³¹⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Tai Chi profesional baten bitartez eta DVD baten bitartez ordutebeteko sesioak 12 astez. (n=47) KT: Inpaktu baxuko ariketa fisikoa (besoekin, lepoarekin eta hankekin, talde muskular ezberdinen luzaketak eta arnasketa abdominal sakonak). Ordutebetez 12 astez. (n=44) 	<p>MFSI-SF: Total score</p> <ul style="list-style-type: none"> Kimioterapia baino lehen: (KT: 46.8 (12.2)) eta (IT:46.0 (11.6)) → ($p > 0,05$) 6 astetara: (KT: 66,8 (11,9)) eta (IT: 59,5 (11,3)) → $p < 0,05$ 12 astetara: (KT: 59.3 (12.2)) eta (IT: 53,3 (11,8)) → $p < 0,05$ <p>Fatiga generala:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kimioterapia baino lehen: (KT: 15.5(3.6)) eta (IT: 16.3(3.8)) → ($p > 0,05$) 6 astetara: (KT: 20.4 (4.5)) eta (IT: 18.1 (4.6)) → $p < 0,05$ 12 astetara: (KT: 19.2 (4.6)) eta (IT: 17.5 (4.4)) → $p < 0,05$
Quist, et al (2018) Copenhage, Dinamarka ⁽³²⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Errehabilitazio goiztiarra (14 egun zirugia eta gero). 12 astez, astean bi egunez, indarrezko entrenamendu individual zein taldekoak (60min/sesio). (n=119). KT: Errehabilitazio berantiarra (14 aste zirugia eta gero). 2 astez, astean bi egunez, indarrezko entrenamendu individual zein taldekoak (60min/sesio) (n=116) 	<p>EORTC C30 Fatigue:</p> <ul style="list-style-type: none"> Hasieran: (IT: 26) eta (KT: 31) VS 14 astetara: (IT: 29) eta (KT:38) → $p=0,017$. <ul style="list-style-type: none"> IT-an → $p=0,911$. KT-an → $p= <0,001$ 14 astetara: (IT: 28) eta (KT: 35) VS 26 astetara: (IT: 23) eta (KT: 21) → $p=0,020$. <ul style="list-style-type: none"> IT-an → $p=0,278$. KT-an → $p= <0,001$ Hasieran: (IT:29) eta (KT:28) VS 26 astetara: (IT: 27) eta (KT: 26) → $p= 0,551$. <ul style="list-style-type: none"> IT-an → $p=0,506$. KT-an → $p=0,850$ Hasieran (IT:27) eta (KT:27) VS 52 astetara: (IT: 26) eta (KT: 27) → $p=0,431$. <ul style="list-style-type: none"> IT-an → $p=0,912$. KT-an → $p= 0,234$
Chen et al (2020) Taiwan ⁽³³⁾	2 talde (IT-an 6 azpitalde): <ul style="list-style-type: none"> IT: Kalaen oinez ibiltzea intentsitate moderatuan 40 minutuz, astean 3 egunez, 12 astez. (6 azpitalde sortu ziren) (n=60). Analisisietan (n=43) <ul style="list-style-type: none"> T₁ → Lo egiteko ordua baino 4 ordu lehenago ariketa fisikoa egitea (n=6) T₂ → Lo egiteko ordua baino 4 ordu < lehenago ariketa fisikoa egitea (n=37) T₃ → Ariketa fisikoa eguneko argiarekin egitea (n=36) T₄ → Ariketa fisikoa eguneko argirik gabe egitea (egunsentia eta gero) (n= 7) T₅ → Ariketa fisikoa ordutegi finkoarekin egitea (n=35) T₆ → Ariketa fisikoa ordutegi finkorik gabe egitea (n=8) KT: Ohiko arreta (n=62) 	<p>Ariketa fisikoa ohera sartu baino 4h< (T₁) VS 4h> (T₂)</p> <p>FATIGA</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₁=2,16) eta (T₂ = 3.00) 3 hilabetara : (T₁ = 2,03) eta (T₂ = 4,5) 6 hilabetetara : (T₁ = 1,79) eta (T₂ = 5,00) <ul style="list-style-type: none"> T₁-an denboran zehar → $p= <0,0001$ <p>Ariketa fisikoa eguneko argiarekin (T₃) VS eguneko argirik gabe (T₄)</p> <p>FATIGA</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₃=2,19) eta (T₄=2.71) 3 hilabetara : (T₃ = 2,06) eta (T₄ = 4.00) 6 hilabetetara : (T₃ = 1,84) eta (T₄ = 4.29) <ul style="list-style-type: none"> T₃-an denboran zehar → $p= 0,037$ <p>Ariketa fisikoa egiteko ordutegi finkoa (T₅) VS ordutegi finkorik ez (T₆)</p> <p>FATIGA</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₅=2,34) eta (T₆ = 2.00) 3 hilabetara : (T₅ = 2,40) eta (T₆ = 2.25) 6 hilabetetara : (T₅ = 2.06) eta (T₆ = 3.13) <ul style="list-style-type: none"> T₅-ean denboran zehar → $p= 0,264$
Hwang et al (2012) Taiwan ⁽³⁴⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Entrenamendu aerobikoak osasun zentroan (zintan edo bizikleta ergometrikoan) astean 3 egunez, guztira 24 sesio. (n=13) KT: Ohiko arreta, heziketa eta telefono deiak 2-3 astero. (n=11) 	<p>EORTC QLQC30</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioaren hasieran: (KT: 26.3) eta (IT:14.5) 8 astetara: (KT: 17.2) eta (IT: 9.4) <p>Diferentzia KT-an: $p=0,01$</p> <p>Diferentzia IT-an: $p=0,05$</p> <p>Diferentzia taldeen artean: $p=0,30$</p>

IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; EORTC: European Organisation for the Research and Treatment of Cancer ; MFSI-SF:

Multidimensional Fatigue Symptom Inventorye Short Form

Fatiga murrizteaz gain, estatistikoki diferentzia esanguratsuak lortu zituztenen artean, Hoffman et al-ek⁽³⁰⁾, Chen et al-ek⁽³³⁾ eta Hwang et al-ek⁽³⁴⁾ ariketa fisiko aerobikoa burutu zuten. Lehenengoan⁽³⁰⁾, interbentzio taldean (IT) zeudenak aurreko egunean oinez egindako denborari 5 minutu gehiago gehitzean zatzan, 30 minututara heldu arte. Horiek ohiko arreta estandarra jaso zutenekin, hots, kontrol taldearekin (KT) alderatuz, 6 astetara diferentzia estaistikoki esanguratsuak lortu zituzten, izan ere, IT-an fatiga murriztea lortu zuten bitartean, KT-an areagotu egin zen (*Kirurgia baino lehen: IT: 2,2 (DE, 2,0) eta KT: 2,0 (DE, 1,9); 6 astetara: IT: 0,7 (DE, 0,7) eta KT: 4,0 (DE, 2,0) p:<0,001*).

Chen et al-ek⁽³³⁾, Taiwanen egindakoan aldiz, kalean, eguneko momentu ezberdinetan oinez ibiltzen ziren 6 talde ezberdin sortu zituzten. Ariketa fisikoa ohera sartu baino 4 ordu baino gehiago egin zutenek, fatiga murriztea lortu zuten, 6 hilabetetara estatistikoki diferentzia esanguratsuak lortuz (*Interbentzioa baino lehen: (T₁=2,16); 6 hilabetetara : (T₁ = 1,79) p= <.0001*). Eguneko argiarekin ibiltzen zirenetan ere estatistikoki diferentzia esanguratsuak lortu ziren denbora tarte berdinean *Interbentzioa baino lehen: (T₃=2,19); 6 hilabetetara : (T₃ = 1,84); p= 0,037*). Azpimarratu beharra dago, lagina txikia izateaz gain, azpitaldeei dagokienez, diferentzia handiak daudela laginen artean, esate baterako, T₁ taldean (n=6) den bitartean, T₂ taldean (n=37) da, hau da, homogeneousun gutxi antzematen da.

Beste alde batetik, Hwang et al-ek⁽³⁴⁾, fatiga murriztea lortzeko, IT-an zeudenak astean 3 egunez zintzan edo bizikleta ergometrikoan ibiltzen 24 sesio egin zituzten eta KT-an zeudenaz berriz, ohiko arreta jaso zuten. Bi taldeetan lortu zen fatigaren murrizketa, eta beraz, ez zen estatistikoki diferentzia esanguratsurik aurkitu bien artean 8 astetako tartean. Gainera, KT-an aurkitutako diferentzia IT-an aurkitutako diferentzia baino esanguratsuagoa izan zen (*Diferentzia KT-an: p=0,01; Diferentzia IT-an: p=0,05*).

Zhang et al-ek⁽³¹⁾ aldiz, profesional baten bitartez egindako eta DVD bat ikustearen bitartez egindako Tai-Chi bitartez (IT) eta inpaktu baxuko ariketa fisikoarekin (KT) lortu zuten fatigaren murrizketa 12 astetan. MFSI-SF eskalaren arabera eta fatiga orokorraren eskalaren arabera, KT-an murrizketa handiagoa eman zen, eta horren ondorioz, 6 astetara eta 12 astetara, estatistikoki esanguratsuak ziren diferentziak aurkitu ziren taldeen artean (*MFSI-SF: Total score: 6 astetara: (KT: 66,8 (111,9)) eta (IT: 59,5*

(11,3)) $p < 0,05$; 12 astetara: (KT: 59.3 (12.2)) eta (IT: 53,3 (11,8)) $\rightarrow p < 0,05$; Fatiga generala: 6 astetara: (KT: 20.4 (4.5)) eta (IT: 18.1 (4.6)) $\rightarrow p < 0,05$; 12 astetara: (KT: 19.2 (4.6)) eta (IT: 17.5 (4.4)) $\rightarrow p < 0,05$). Azpimarratu beharra dago, ikerketa honetan ez zela itsutasuna gorde ez parte hartzaileetan ezta datuak jasotzen zituzten pertsonetan ere.

Azkenik, Quist et al-ek⁽³²⁾ egin zuten ikerketan, errehabilitazio goiztiarra (14 egun kirurgia eta gero) eta errehabilitazio berantiarra (14 aste kirurgia eta gero) alderatu zituzten. Errehabilitazio horretan indarrezko entrenamenduak egiten ziren. Hasieratik eta 14 astetara eta 14 astetatik eta 26 astetara diferentzia esanguratsuak lortu ziren errehabilitazio berantiarra egin zutenetan ($p < 0.001$ bi kasuetan). Kasu honetan ere, Zhang et al⁽³⁵⁾ egindako ikerketakoan bezala, ez zen itsutasuna gorde, ez parte hartzaileetan ezta IT-ko ikertzaileetan ere.

2.Taula: Ariketa fisikoaren eta fatigaren artean estatistikoki diferentzia ez esanguratsuak

Ikerketa	Lagina/Interbentzioa	Emaitzak
Dhillon et al (2017) Sydney, Australia ⁽³⁵⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT (n=56): Ariketa fisikoari eta nutrizioari buruzko informazioa jaso + 8 astetarako ariketa fisiko aerobikoa indibidualizatu (45 min-1h sesio bakoitzak). KT (n=55): Ariketa fisikoari eta nutrizioari buruzko informazioa jaso. 	FACT-Fatigue Unadjusted: <ul style="list-style-type: none"> Hasieran (IT : 38,43 KT: 36,34) 2 Hilabetetara (IT: 37,53 KT: 36,36) $\rightarrow p=0,618$ 4 hilabetetara (IT: 39,38 KT: 35,33) $\rightarrow p=0,107$ 6 hilabetetara (IT:36.67 KT34.00) $\rightarrow p=0,317$ *Ajustea. <ul style="list-style-type: none"> 2 hilabetetara (IT:38.32 KT:38.16) $\rightarrow p=0,938$ 4 hilabetetara (IT:39.84 KT: 37.19) $\rightarrow p=0,241$ 6 hilabetetara (IT: 37.07 KT:35.76) $\rightarrow p=0,592$
Bade et al (2021) Estatu Batuak ⁽³⁶⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Egunero 400 pausu gehiago ematea, 10.000 pausu ematea lortuz gero, hori mantentzea, 12 astez. (n=20) KT: Ohiko arreta (n=20) 	FATIGA: EORT QLQ-C30 <ul style="list-style-type: none"> Hasieran: (IT: 23.33 (19.04) KT: 25.56 (20.10)) $\rightarrow p=0.72$ 12 astetara: (IT: 18.04 (5.54) KT: 23.21 (5.79)) $\rightarrow p=0.456$
Henke et al (2014) Berlin, Alemania ⁽³⁷⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Entrenamentu fisioterapeutiko berezia. Entrenamentu aerobikoaren 5 sesio astean (oinez ibili + eskailerak igo) + indarrezko 2 sesio astean. (n=18) KT: Ohiko fisioterapia. (n=11) 	EORTC QLQ C30 Fatigue: <ul style="list-style-type: none"> Hasieran \rightarrow (IT: 43.75(28,82)) eta (KT: 59.83 (29.93)) Interbentzioa eta gero: (IT:50.69(27.51)) eta (KT:64.10(36.619)) IT eta KT artean $\rightarrow p=0.05<$ IT-an denboran zehar $\rightarrow p=0.05<$ KT-an deboran zehar $\rightarrow p=0.05<$

IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; EORTC: European Organisation for the Research and Treatment of Cancer ; FACT: Evaluación Funcional de la Terapia contra el Cáncer-Fatiga

Badaude beste hainbat ikerketa, ariketa fisikoaren eraginkortasuna egiaztatu ezin izan dutenak. Hala ere, Australian Bade et al-ek⁽³⁶⁾ egindako ikerketan, fatigaren murrizketa lortu zen. Horretarako, IT-an zeudenek, aurreko egunean egindako pausu kopuruari, egunero 400 pausu gehitzen saiatu behar ziren, 10.000 pausutara heldu arte. KT-an zeudenek aldiz, ohiko arreta jaso zuten. Bi taldeetan eman ziren hobekuntzak fatigari dagokionez, baina IT-an eman ziren hobekuntzak handiagoak izan ziren. Hala ere, ez ziren estatistikoki ezberdintasun esanguratsurik lortu. Azpimarratu beharra dago taldeen

artean estatistikoki diferentzia esanguratsua egon zela sexuari dagokionez ($p=0.03$), KT-an emakume gehiago baitzeuden. Gainera, lagina ($n=40$) oso txikia izan zen.

Bestalde, Dhillon et al-ek⁽³⁵⁾ eta Henke et al-ek⁽³⁷⁾ estatistikoki diferentzia esanguratsuak ez aurkitzeaz gain, fatigaren areagotzea lortu zuten.

Lehenengoan⁽³⁵⁾, ariketa fisikoari eta nutrizioari buruzko informazioa jasotzeaz gain, 8 astez, 45 minutuz- 1 orduz, entrenatzaile batekin ariketa fisiko aerobikoa egiten zuten pazienteak (IT) egin ez zutenekin (KT) alderatu zituzten. Hau egiterakoan, fatiga murriztea baino, areagotzea eragin zuten bi taldeetan eta beraz, taldeak adin, sexu, minbiziaren estadio eta fatiga basalaren arabera doitu ziren, baina berriz ere, fatigaren areagotzea eman zen bi taldeetan, nahiz eta KT-an gehiago areagotu zen. Esan beharra dago taldeen banaketa ez zela modu itsuan egin.

Bigarrenean⁽³⁷⁾ aldiz, IT-an ariketa fisiko aerobikoa egiteaz gain, indarrezko entrenamenduak ere egiten zituzten, eta horiek ohiko fisioterapiarekin (KT) konparatu ziren. Bi taldeetan eman zen fatigaren areagotzea, KT-an proportzio txikiagoan. Aipatzekoa da, ikerketa honetan ez dela bi taldeen homogeneotasuna bermatzen duen taularik agertzen. Gainera, beste taulek adierazi zuten funtzionamendu fisiko, neuropatia periferiko eta disnari dagokionez, taldeen arteko ezberdintasun esanguratsuak ($p=0.05>$) zeudela interbentzioa hasi baino lehen.

3.taula: Ariketa fisikoa eta fatigaren artean zalantzazko diferentziak

Ikerketa	Lagina/Interbentzioa	Emaitzak
Cheung et al (2021) Hong Kong, China ⁽³⁸⁾	3 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT Ariketa fisiko aerobikoa: 12 astez, 60 minutuz gimnasio batean ariketa fisiko aerobiko eta indartze ariketak astean bi aldiz + ariketa aerobikoa astean 90 minutuz modu autopraktikoan. ($n=10$) IT Tai-chi: 12 astez, 60 minutu irautean zuten Tai-chi klaseetara asistentzia astean bi aldiz + 30 minutuz astean 3 aldiz autopraktika egitea ($n=9$) KT: OME-k ariketa fisikoari dagokionez, egiten dituen gomendioen berri jaso idatziz. ($n=11$) 	IT Ariketa fisiko aerobikoa: BFI <ul style="list-style-type: none"> Hasieran 1.78 ± 0.72 12 asteren ondoren 1.97 ± 0.77 6 hilabetetara 2.48 ± 0.87 Urtebetara 2.45 ± 1.03
		IT Tai-chi: BFI <ul style="list-style-type: none"> Hasieran: 1.21 ± 0.76 12 asteren ondoren 2.48 ± 0.82 6 hilabetetara 2.13 ± 0.90 Urtebetara 1.80 ± 1.05
		KT: BFI Hasieran 3.78 ± 0.69 12 asteren ondoren 3.25 ± 0.76 6 hilabetetara 4.78 ± 0.83 Urtebetara 4.95 ± 0.97
Sullivan et al (2021) Estatu Batuak ⁽³⁹⁾	Talde bakarrak: <ul style="list-style-type: none"> IT: 12 astez, gainbegiraturako, intentsitate ertaineko yogako klaseak + gainbegiratu gabeko, intentsitate ertaineko, bideo bidezko yoga klaseak bikotearen laguntzarekin. ($n=23$) 	FATIGA: Parte hartzaileen %54-ak hobetu eta gainontzekoek, okerrera egin edo berdin mantendu.

Hoffman et al (2014) Michigan, Estatu Batuak ⁽⁴⁰⁾	<p>Talde bakarra:</p> <ul style="list-style-type: none"> IT: Astean 5 egunez, 16 astetan zehar, oinez ibiltzea eta oreka ariketak egitea errealitate birtuala erabiliz Nintendo Wii Fit Plus-arekin. 	<p>FATIGA: (BFI)</p> <ul style="list-style-type: none"> Kirurgia baino lehen: ≈ 3.3 Kirurgia eta gero: ≈ 4.8 I. fasea : <ul style="list-style-type: none"> 1. astean: 4 2. astean: ≈ 4.2 3. astean: ≈ 3.7 4. astean: ≈ 2.3 5. astean: ≈ 2.5 6. astean: ≈ 2.8
		<ul style="list-style-type: none"> II. fasea: <ul style="list-style-type: none"> 7. astean: ≈ 2.2 8. astean: ≈ 2.1 9. astean: ≈ 2.7 10. astean: ≈ 2.6 11. astean: ≈ 2.3 12. astean: ≈ 2.9 13. astean: ≈ 2.8 14. astean: ≈ 1.9 15. astean: ≈ 1.9 16. astean: ≈ 1.2

IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; BFI: The Brief Fatigue Inventory.

Kasu hauetan ezin da jakin lortutako emaitzak egindako interbentzioaren ondorioa diren edo ez, izan ere, ez dute p -rik erabili, eta horren ondorioz, ezin da interbentzioaren eraginkortasuna egiaztatu.

Hala ere, Sullivan et al-ek⁽³⁹⁾ eta Hoffman et al-ek⁽⁴⁰⁾ egindako interbentzioetan, fatigaren murrizketa lortu zen.

Lehenengo horretan⁽³⁹⁾ talde bakarrean egin zen interbentzioa, hau da, ez zen KT-rik eratu. Talde horretan, 23 paziente batu ziren eta 12 astez, gainbegiraturako, intentsitate ertaineko, yoga klaseak eta bideo bitartezko yoga klaseak jaso zituzten. Horietatik %54ak hobekuntzak lortu zituen fatigari dagokionez.

Bigarrenean⁽⁴⁰⁾ ere talde bakarra eratu zuten, baina kasu honetan 16 astez, astean 5 egunez, Nintendo Wii Fit Plus-aren bitartez oreka ariketak eta oinez ibili behar ziren. Bi fasetan banatu zuten interbentzioa: 1. astetik- 6. astera eta 7. astetik-16. astera. Bi fase horietan eman zen fatigaren murrizketa, naiz eta, zenbait asteren artean fatigaren areagotzea eman (*1. astean: 4; 6. astean: ≈ 2.8*); (*7. astean: ≈ 2.2 ; 16. astean: ≈ 1.2*).

Beste alde batetik, Cheung et al-ek⁽³⁸⁾ egin zuten ikerketan, fatigaren murrizketa lortu beharrean, fatiga areagotzea lortu zuten. Kasu honetan 3 talde ezberdindu ziren, 12 astez gimnasio batean 60 minutuz ariketa aerobikoa egin zutenak, 12 astez, astean bitan, Tai-chi klaseetara joaten zirenak, eta OME-k ariketa fisikoari dagokionez, horren inguruko gomendioak jaso zituztenak (KT). BFI eskala erabili zen fatigaren neurketak egotek. Hiru taldeetan eman zen fatigaren areagotzea urtebete pasa eta gero. Hala ere,

esan beharra dago ariketa fisiko aerobiko eta KT-an fatigaren areagotze progresiboa izan zen bitartean, Tai-Chi-a egin zuten taldean fatigaren murrizketa eman zela 6. hilabete eta 12. hilabeteren artean (6 hilabetetara 2.13 ± 0.90 ; Urtebetetara 1.80 ± 1.05).

2. Ariketa fisikoaren eraginkortasuna loaren-kalitatea hobetzeko, biriketako minbizia duten pazienteengan

Lan honen emaitzen atala idazteko erabiliko diren 15 artikuluetatik, 8-k^(32,33,35-39,41) erlazionatzen ditu ariketa fisikoa eta loaren-kalitatea biriketako minbizia duten pazienteetan.

2. azpigai honen emaitzak lortzeko erabili diren 8 artikuluetatik, 3-k^(32,33,41) loaren-kalitatean estatistikoki esanguratsuak diren hobekuntzak lortu zituzten, beste hiruk aldiz⁽³⁵⁻³⁷⁾, ez zituzten aldaketa esanguraturik lortu, eta beste biek^(38,39) aldaketak lortu bazituzten ere, estatistikoki esanguratsuak diren edo ez ezin da jakin *p*-rik erabili ez zutelako.

4. taula: Ariketa fisiko eta loaren-kalitatearen artean estatistikoki diferentzia esanguratsuak

Ikerketa	Lagina/Interbentzioa	Emaitzak
Quist, et al (2018) Copenhage, Dinamarka ⁽³²⁾	2 talde: <ul style="list-style-type: none"> IT: Errehabilitazio goiztiarra (14 egun zirugia eta gero). 12 astez, astean bi egunez, indarrezko entrenamendu indibidual zein taldekoak (60min/sesio). (n=119). KT: Errehabilitazio berantiarra (14 aste zirugia eta gero). 2 astez, astean bi egunez, indarrezko entrenamendu indibidual zein taldekoak (60min/sesio) (n=116) 	INSOMNIOA; EORTC C30 Insomnia <ul style="list-style-type: none"> Hasieran: (IT: 27) eta (KT: 36) 26 astetara: (IT: 22) eta (KT: 21) Hasiera eta 26 asteren artean bi taldeen artean → <i>p</i> = 0,211 IT hasieratik 26 astetara → <i>p</i> =0,016 KT hasieratik 26 astetara → <i>p</i> <0,001
Chen et al (2020) Taiwan ⁽³³⁾	2 talde (IT-an 6 azpitalde): <ul style="list-style-type: none"> IT: Kalean oinez ibiltzea intentsitate moderatuan 40 minutuz, astean 3 egunez, 12 astez. (6 azpitalde sortu ziren) (n=60) <ul style="list-style-type: none"> T₁ → Lo egiteko ordua baino 4 ordu lehenago ariketa fisikoa egitea (n=6) T₂ → Lo egiteko ordua baino 4 ordu < lehenago ariketa fisikoa egitea (n=37) T₃ → Ariketa fisikoa eguneko argiarekin egitea (n=36) T₄ → Ariketa fisikoa eguneko argirik gabe egitea (egunsentia eta gero) (n= 7) T₅ → Ariketa fisikoa ordutegi finkoarekin egitea (n=35) T₆ → Ariketa fisikoa ordutegi finkorik gabe egitea (n=8) KT: Ohiko arreta (n=62) 	<p>Ariketa fisikoa ohera sartu baino 4h< (T₁) VS 4h> (T₂)</p> <p>PSQI</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₁=8.62) eta (T₂ = 10.67) 3 hilabetetara : (T₁ = 5.95) eta (T₂ = 7.00) 6 hilabetetara : (T₁ = 6.03) eta (T₂ =8.33) <ul style="list-style-type: none"> T₁-an denboran zehar → <i>p</i>= 0,012 <p>Total sleep time (TST)</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₁=369.34) eta (T₂ = 384.33) 3 hilabetetara : (T₁ = 382.33) eta (T₂=374.75) 6 hilabetetara : (T₁ = 402.06) eta (T₂ =384.57) <ul style="list-style-type: none"> T₁-an denboran zehar → <i>p</i>=0,037 <p>Sleep onset latency (SOL)</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₁=30.60) eta (T₂ = 12.33) 3 hilabetetara : (T₁ = 22.67) eta (T₂ = 29.73) 6 hilabetetara : (T₁ = 23.88) eta (T₂=19.90) <ul style="list-style-type: none"> T₁-an denboran zehar → <i>p</i>= 0,017 <p>Ariketa fisikoa eguneko argiarekin (T₃) VS eguneko argirik gabe (T₄)</p> <p>PSQI</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₃=8.50) eta (T₄= 11.00) 3 hilabetetara : (T₃ = 5.92) eta (T₄= 7.00) 6 hilabetetara : (T₃ = 6.00) eta (T₄ =8.14) <ul style="list-style-type: none"> T₃-an denboran zehar → <i>p</i>= 0,039 <p>TST</p> <ul style="list-style-type: none"> Interbentzioa baino lehen: (T₃=370.60) eta (T₄ = 375.67) 3 hilabetetara : (T₃ = 382.33) eta (T₄=374.75) 6 hilabetetara : (T₃ = 400.38) eta (T₄=394.64) <ul style="list-style-type: none"> T₃-an denboran zehar → <i>p</i>=0,482 <p>SOL</p>

		<ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ($T_3=30.51$) eta ($T_4= 15.43$) • 3 hilabetara : ($T_3 = 22.67$) eta ($T_4 = 29.92$) • 6 hilabetetara : ($T_3 = 23.87$) eta ($T_4=20.49$) <ul style="list-style-type: none"> ◦ T_3-an denboran zehar → $p= 0,099$ <p>Ariketa fisikoa egiteko ordutegi finkoa (T_5) VS ordutegi finkorik ez (T_6)</p> <p>PSQI</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ($T_5=8.51$) eta ($T_6 = 10.63$) • 3 hilabetara : ($T_5 = 5.89$) eta ($T_6 = 7.00$) • 6 hilabetetara : ($T_5= 6.29$) eta ($T_6 =6.75$) <ul style="list-style-type: none"> ◦ T_5-ean denboran zehar → $p= 0.162$ <p>TST</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ($T_5=372.43$) eta ($T_6 = 367.03$) • 3 hilabetara : ($T_5 = 378.60$) eta ($T_6=392.90$) • 6 hilabetetara : ($T_5 = 389.50$) eta ($T_6=434.45$) <ul style="list-style-type: none"> ◦ T_5-ean denboran zehar → $p=0,422$ <p>SOL</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ($T_5=30.86$) eta ($T_6 = 15.77$) • 3 hilabetara : ($T_5 = 24.88$) eta ($T_6 = 18.81$) • 6 hilabetetara : ($T_5 = 25.18$) eta ($T_6=16.19$) <ul style="list-style-type: none"> ◦ T_5-ean denboran zehar → $p= 0,509$
<p>Chen et al (2016) Taiwan⁽⁴¹⁾</p>	<p>2 talde:</p> <ul style="list-style-type: none"> • IT: Astean 3 egunez, ibilketa ariketak etxean 40 minutuz (intentsitate ertaina), 12 astez (n=56) • KT: Ohiko arreta (kirurgia ondorengo zainketak, kimioterapia zainketak eta ambulategiko jarraipena) (n=55) 	<p>Loaren -kalitate subjektiboa: PSQI → $p=0,001$</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ((KT:8,82) (IT:9,25)) • 3 hilabetetara: ((KT: 8,9) (IT:2,26)) • Interbentzioa amaitzean: ((KT:8,33) (IT:6,49)) <p>Loaren-kalitate objektiboa:</p> <p>Lo egindako denbora (TST) → $p=0.023$</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ((KT:395.06) (IT:380.32)) • 3 hilabetetara: ((KT:375.94) (IT: 380.72)) • Interbentzioa amaitzean: ((KT:369.29) (IT:401.76)) <p>Loaren efikazia (SE) → ($p= 0.779$)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ((KT:88.36) (IT:88.94)) • 3 hilabetetara: ((KT:87.10) (IT:89.14)) • Interbentzioa amaitzean: ((KT:85.07) (IT:88.18)) <p>Loaren hasiera (SOL) → ($p= 0.427$)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interbentzioa baino lehen: ((KT:31.85) (IT:27.14)) • 3 hilabetetara: ((KT:42.78) (IT:28.29)) • 6 hilabetetara: (KT:37.88) (IT:22.15)

IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; EORTC: European Organisation for the Research and Treatment of Cancer; PSQI: Pittsburgh Sleep Quality Inventory; TST: Total sleep time; SOL: Sleep onset latency.

Ariketa fisikoak loaren-kalitatea hobetzea frogatu zutenen artean, Chen et al-ek 2020-an⁽³³⁾ eta 2016-an⁽⁴¹⁾ egindako ikerketek, ariketa fisiko aerobikoa erabili zuten. Bietan oinez ibiltzea zen interbentzioa.

Lehenengoan⁽³³⁾, aurreko azpigaian azaldu den bezala, 6 azpitalde bereizi ziren eta loaren-kalitatea PSQI eskalaren bitartez neurtu zuten. Horiek eguneko momentu ezberdinetan egiten zuten ariketa fisikoa. Jarduera fisikoa ohera sartu baino 4 ordu baino gehiago lehenago (T_1) egin zutenetan, loaren-kalitatea, lo egindako orduen kantitatea (TST) eta loak-hartzeko hasierako latenzian (SOL) hobekuntza estatistikoki esanguratsuak eman ziren ($PSQI: p=0,012$; $TST: p=0,037$; $SOL: p=0,017$). Eguneko argiarekin ibili zirenetan (T_3) ere, hobekuntza estatistikoki esanguratsuak eman ziren loaren-kalitatean ($PSQI: p=0,039$). TST eta SOL-an ez ziren estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak lortu, baina hala ere, hobekuntzak eman ziren.

2016-ean egindako ikerketan⁽⁴¹⁾ berriz, etxean, astean 3 egunez eginiko ibilketa ariketak egin zituzten IT-an zeudenek. KT-an zeudenek aldiz, ohiko arreta jaso zuten. Ikerketa honetan ere, PSQI eskala erabili zuten loaren-kalitate subjektiboa neurtzeko, eta 12 asteren buruan, estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak lortu zituzten IT eta KT-aren artean, izan ere, IT-an loaren-kalitateak, denbora tarte horretan, hobera egin zuen bitartean, KT-an nahiko berdindu mantendu zen (*Interbentzioa baino lehen: (KT:8,82) (IT:9,25); Interbentzioa amaitzean: (KT:8,33) (IT:6,49); p=0,001*). TST-arekin antzerako zerbait gertatu zen, IT-an hobera egin zuen eta KT aldiz, okerrera, eta horren ondorioz, estatistikoki ezberdintasun esanguratsuak lortu ziren bi taldeen artean (*Interbentzioa baino lehen: (KT:395.06) (IT:380.32); Interbentzioa amaitzean: (KT:369.29) (IT:401.76) p=0,023*). Loaren efikazia nahiko berdintsu mantendu zen IT eta KT-an gutxitu egin zen. Azkenik, SOL-ari dagokionez, IT-an hobekuntzak eman baziren ere, hauek ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan. Azpimarratu beharra dago, ikerketa honetan ez zela itsutasuna gorde. Gainera KT-ko 3 pertsonak ariketa fisikoa egin zutela aitortu zuten, eta horrek emaitzak aldatu ahal izan zituen.

